

# UPPAren eta UPV/EHUren arteko tutorekidetza erregimenean doktorego tesiak egiteko kontratazio deialdia 2017

## PROIEKTUEN DEIALDIAREN XEDEA

UPPAk eta UPV/EHUK sinatutako oinarrizko lankidetzak hitzarmenaren esparruan, proiektuen deialdi publiko bat egin da, **doktorego tesiak tutorekidetzak erregimenean egitea** helburu duten doktorego aurreko kontratuak formalizatzeko.

Horri begira, deialdi honen ondorioz hautatutako pertsonak kontratatzen dituen unibertsitatean doktorego tesiak tutorekidetzak erregimenean egiteko indarreko arautegiari daude lotuta.

Deialdi hau zabalik dago ezagutza arlo guztientzat.

## PROZEDURA

- 2017an doktorego aurreko 6 kontratu finantzatuko dira (unibertsitate bakoitzean 3).
- Proiektuen proposamenak honako irizpide hauen arabera aurkeztuko dira:
  - Proposamena **unibertsitate bietan aurkeztu beharko da**. Proposamena ingelesez edo unibertsitate bietako hizkuntza ofizialetan erredaktatu beharko da, hau da, gaztelania-euskara (UPV/EHU)/frantsesa (UPPA).
  - Aurkeztutako proiektu bakoitzeko proposamen bakarra, baita proposamenak hautagai bat baino gehiago barne hartzen baditu ere.
- Proiektuak UPPAko eta UPV/EHUko kideek osatutako batzorde misto batek aukeratuko ditu. Batzordeak izaera paritarioa izango du eta irakasle eta ikertzaileez osatuta egongo da. Horiek aukeratzean, ezagutza arlo desberdinen arteko orekari eutsi beharko zaio. Horretarako, unibertsitate bakoitzeko Batzorde Mistoko taldeak hautagaien ebaluazioa egingo du eta, ondoren, Batzorde Mistoko osoak bilera egingo du bereizita egindako ebaluazioak aztertzeko eta behin betiko sailkapen bat finkatzeko, baita unibertsitate bakoitzak kontratatuko dituen hautagaiak aukeratzeko ere.
- Aukeraketa egiteko, kontuan hartuko dira proposatutako hautagaien tesi proiektuen eta CVaren kalitatea eta espediente akademikoa (ikusirik aurrerago ebaluatzeko irizpideak). Hautagai bakoitzeko balorazio bat egingo da (behean aipatutako metodologiari jarraiki). Ez hautatutako eskatzaileei ere komunikatuko zaizkie euren balorazioaren emaitzak.

- Zerrenda nagusi bat egingo da aukeratutako hautagaiekin, eta beste itzarote-zerrenda bat aukerako hautagaiekin.
  - Doktorego tesia egiteko proiektu bakoitzeko hautagai bakarra aukeratu ahal izango da.
  - Aurkeztutako proiektuak hainbat hautagai barne hartzen baditu, batzorde mistoak sailkapen bat egin beharko du horien artean, posizionamendu onena lortzen duena aukeratzeko.
  - Zerrendetan proiektuak eta horien arduradunek proposatutako hautagaiak jasoko dira.
  - Zerrenda nagusian dagoen hautagai batek uko eginez gero, itzarote-zerrendako lehen proiektuari dagokion hautagaia aukeratuko da.
  - Aukeratutako itzarote-zerrendako proiektuak hainbat hautagai barne hartzen baditu, batzorde mistoak horien arteko sailkapen bat egin beharko du, posizionamendu onena duena aukeratzeko.
- Ondorioz, doktorego tesia egiteko proiektu bera bi zerrendetan ager daiteke aldi berean, zerrenda nagusian eta itzarote-zerrendan (aukeratutako hautagaiekin eta proposatutako beste hautagai batzuekin, hurrenez hurren).
- Proiektuen bi zerrendak (zerrenda nagusia eta itzarote-zerrenda) bi unibertsitateen artean argitaratuko dira.
- Aukeratutako hautagaiek masterra edo horren baliokidea amaituta izan beharko dute doktoratu aurreko kontratua sinatu aurretik.
- Aukeratutakoek doktorego aurreko 3 urteko kontratu bat lortuko dute. Ondoko arauak aplikatuko dira:
  - Tesia finantzatuko duen unibertsitatean matrikulatzeko gastuak aukeratutako doktoregaiek ordainduko dituzte.
  - Doktoregaiak Euskal Herriko Unibertsitatean ordaindu beharko ditu diploma editatzeko eskubideak.
  - Doktoregaiek 9 hilabeteko egonaldia egin beharko dute unibertsitate lankidean.
  - Mugikortasunari eta tesiaren defentsari lotutako funtzionamendu-kostuak ez dira proiektu deialdiaren parte gisa onartuko.
- Bi erakundeek tutorekidetza hitzarmen bana sinatuko dute finantzatutako tesi bakoitzeko, eta, bertan, tesi bakoitzari buruzko xehetasunak jasoko dira.
- UPV/EHUK eta UPPAK sinatutako oinarrizko lankidetza eta tutorekidetza hitzarmenetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira. Hitzarmen horietan jasota ez dauden alderdiei dagokienez, tesia finantzatuko duen herrialdeko araudia izango da aplikagarri.
- Deialdiaren kudeaketa prozesuaren eta emaitzen berri eman beharko zaie bi unibertsitateetako atal eskudunei (doktorego eskolak, UPPAko Ikerketa Kontseilua eta Kontseilu Zientifikoa, UPV/EHUren Master eta Doktorego Eskola).

- Dagoeneko doktoregaiak diren hautagaiak deialdian parte hartu dezakete honako baldintza betetzen badituzte:
  - UPV/EHUko edo Espainiako beste unibertsitate bateko doktoretza programa bateko lehen urtean matrikulatuta badaude.
  - Kontratazioa deialdi honen barruan egiten badu UPV/EHUk.

## **DATAK**

- **Proiektuen deialdien baterako argitalpena:** 2017/05/09
- **Proposamenak aurkezteko azken eguna:** 2017/06/09  
UPPAn (DRV zerbitzua) Frantziako taldeentzat (eskaera frantsesez edo ingelesez) eta UPV/EHUUn (Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren Deialdien Atala) Espainiako taldeentzat (eskaera gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez).
- **Batzorde mistoak eskaerak aztertzeko epea:** uztailaren lehen hamabostaldia
- **Aukeratutako proiektuen eta hautagaien azken zerrenda:** uztailaren lehen hamabostaldia (zerrenda nagusia + itxarote-zerrenda).
- **Doktorego tesiaren hasiera:** 2017ko iraila.

## **BATZORDE MISTOA**

**Batzorde mistoan IIPak soilik izango dira kide. Kide hauek soilik hartuko dute parte elkarrizketetan eta erabakietan.**

### **UPPA:**

- Gizarte eta Giza Zientzien Doktorego Eskolako zuzendaria (edo hark eskuordetzen duen pertsona).
- Zientzia Zehatzen eta horien Aplikazioen Doktorego Eskolako zuzendaria (edo hark eskuordetzen duen pertsona).
- Batzorde Zientifikoko presidenteordea (edo hark eskuordetzen duen pertsona).
- Mugaz bestaldeko lankidetzaren arduraduna (edo hark eskuordetzen duen pertsona).

### **UPV/EHU:**

- Doktorego Eskolako zuzendaria.
- Ikerketaren arloko errektoreordea (edo hark eskuordetzen duen pertsona).
- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetza (edo hark eskuordetzen duen pertsona).
- UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeko (IGBB) ordezkari bat.

## **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Doktorego tesia egiteko proiektuaren ebaluazioa: doktorego tesia egiteko proiektuaren/metodologiaren helburuak/interesa. (15 puntu arte)
- Ikerketa taldeak, tesi zuzendaria; bi taldeen arteko osagarritasun zientifikoa. (25 puntu arte)

- Doktoregaiaren lan munduratzearrazteko gauzatutako ekintzak. (15 puntu arte)
- Martxan dauden edo etorkizunean gauzatuko diren proiektuen perspektibak/zerrenda (bereziki, Europa mailakoak). (15 puntu arte)
- Doktoregaiaren espedientea: CVa eta espediente akademikoa.(30 puntu arte)

## **DEIALDI HONETAN UPV/EHUK HAUTATUTAKO PERTSONEI APLIKATUKO ZAIEN ERREGIMENA**

UPV/EHUK kontratatutako pertsonak UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak 2017ko prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko ezarritako eskubide eta obligazioen erregimenari daude lotuta.

## **DEIALDI HONETAN UPPAK HAUTATUTAKO PERTSONEI APLIKATUKO ZAIEN ERREGIMENA**

UPPAk kontratatutako pertsonak 2009ko apirilaren 23ko goi hezkuntzako edo ikerkuntzako erakunde publikoetan kontratua duten doktoregaien 2009-464 dekretuari daude lotuta.

**UPPAk hautatutako doktoregaiak ezin izango du doktorego programa batean matrikulatuta egon dagoeneko.**

# **DOKTOREGO TESIA UPPAren ETA UPV/EHUren ARTEKO TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN EGITEKO PROIEKTU PROPOSAMENA**

**Tesiaren GAIA:**

## **UPPA**

**Tesi zuzendariaren izen-abizenak:** zuzendariak ikerketa prozesua gainbegiratzeko gaiakuntza (HDR) izan behar du.

Eskaera egin duen taldea:

Telefono zk.:

Helbide elektronikoa:

**Taldeko zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

**Doktorego Eskolako zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

## **UPV/EHU**

**Tesi zuzendariaren izen-abizenak:** (Tesia garatuko den doktoretza programako kide izan behar du)

Aukeratutako doktoretza programa:

Eskaera egin duen taldea:

Telefono zk.:

Helbide elektronikoa:

**Taldeko zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

## **Proiektuaren deskribapena (gehienez 4 orrialde):**

**(ondorengo atalak izan behar ditu)**

- 1- Laburpena (gehienez 10 lerro).
- 2- Helburuak, doktorego tesia egiteko proiektuaren interesa eta metodologia.
- 3- Ikerketa taldeen eta tesi zuzendarien aurkezpen laburra (CV laburtua, gehienez 10 lerrokoa, edo webgune baterako esteka); taldeen arteko osagarritasunaren esperientzia.
- 4- Doktoregaiaren lan munduratzea errazteko gauzatutako ekintzak.
- 5- Martxan dauden edo etorkizunean gauzatuko diren proiektuekin (bereziki Europa mailakoekin) lotura duten perspektibak.

## **Proiektu proposamenarekin batera erantsi beharreko hautagaien**

### **dokumentazioa:**

- 1- Hautagaiaren CVa (frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez).
- 2- Espediente akademikoa (Graduko lehen ikasturtetik aurrera).
- 3- Hautagaiaren egungo egoera (masterrean edo doktoretza programan matrikula egin duen...), egindako masterra eta tituluaren data.

**Oharra:** proposamenak hautagai bat baino gehiago barne hartzen baditu, horietako bakoitzari dagozkion aipatutako dokumentuak erantsi beharko dira.